



● Zuzenean 16:00h - 18:00h

Zebrabidea

Oihana Azkue eta Ekhiñe Zapiain

ZUZENEAN ENTZUN



18:00h - 19:00h

Bideokluba

Maite Bidarte

19:00h - 19:15h

Harria 3

2025 URT. 15

Hemen da aurtengo sagardoa

Urtarrilak 15 honetan zabaldu da 2025eko txotx denboraldia Alorrenea sagardotegian. Gure Zirkuko kideak izan dira aurtengo lehen kupela zabaltzearen arduradunak. Bertan izan da NAIZ Irratia eta Alorreneako Jokin Mariezkurrenarekin hitz egiteko aukera izan dugu.

Julen Duhau



Hemen da aurtengo sagardoa



00:00 / 00:00



Jokin Mariezkurrena, Alorrenea sagardotegian (Naiz Irratia)

Eguna goizeaz goiz hasi du Astigarragako Alorrenean sagardotegiak, denboraldia hasteko «gogotsu eta irrikitan». Hala, adierazi du bertako Jokin Mariezkurrenak.

Sagardoa ez da urtero berdin-berdina izaten. Urtez urte, zaporea, usaina, kolorea... aldatzen joaten dira erabilitako produktuen arabera, esaterako. Aurtengoak izango du berezitasunik, Euskal Herrian egon den sagar eskasia dela eta ekoizle asko eta askok gure lurraldeetatik kanpora jo behar izan baitute oinarritzko produktu horren bila. «Etxean sagar gutxi izan dugunez sagardogileok Europara, Frantziara zein Espainiar Estatuko beste zenbait lurraldeetara joan behar izan gara sagar bila».

Gure Zirkuko kideei egokitu zaie aurtengo Txotx denboraldiari hasiera ematea. Hirugarren kupela zabalduko omen dute, Mariezkurrenaren azalpenen arabera sagardo «frutatsua» eta «garraztasun eta gozotasunean orekatua». Hori bai, bertoko sagarrekin egindakoa.

Boom-a

Gero eta zailagoa ari da izaten sagardotegietan erreserbak egitea. Jokin Mariezkurrena

argitu du berak ere baduela sentsazioa «boom» bat egon dela, «modan» jarri dela sagardotegira batez ere larunbat eguerdietan joatea. Hala ere, beste edozein egunetan hurbiltzeko gomendioa egin die zaleei, «giro lasaiagoan egoteko eta gehiago disfrutatzeko».

Txotx 365 egun

Sagardotegi batzuk hasi dira zerbitzua urte osoan ematen. Alorrenea da horietako bat, 24 urtez dihardu urte osoan irekitzen. «Aukera ezin hobea» iruditzen zaio Mariezkurrenari. «Denboraldian txotx-etik dastatuko den sagardoa uda eta udazkenean botilan dastatzeko aukera ematen dugu. Aukera gehiago ere izaten dugu kartan».

PUBLIZITATEA



PUBLIZITATEA

Aste honetan **HARPIDEDUNEN TXOKOAN**

Klikatuenak



Kontxako bandera zuzenean, NAIZ Irratian



«Epe luzera ari naiz lanean, nire bertsiorik onena topatu nahi dut zazpi-hamar urtera»



«Joko aldetik ez dugu hasiera ona egin, baina garaipen oso garrantzitsuak lortu ditugu»



Atalase Anaerobikoa: Kirol errendimendua hobetzeko gakoa



«Klubik ez balego, alferrik arituko ginateke lanean»

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA